## I. ERANSKINA

**Laborategiaren jarduna gidatuko duen lemari ekarpena egingo dioten eta bere programa publikoa zabaldu eta aberastuko duten sormen eta mediazio bekak emateko oinarri arautzaileak**

**1. Helburuak eta aplikazio-eremuak.**

1.1 Beka hauen helburua bikoitza da; batetik, definitutako lemaren markoan kokatzen den, laborategiaren oinarriekin koherentzian doan eta etorkizunean euskaraz bizitzeko hautua egingo duen hiztun komunitatea elikatzeko potentziala aurreikusten zaion ekimen esperimentalak identifikatzea eta laguntzea. Bestetik laborategiaren programa publikoa zabaltzea eta aberastea.

Bekak ekimen esperimental orori zuzentzen dira, edozein delarik kokatzen diren disziplina.

1.2 Urteroko deialdian zehaztuko dira Laborategiaren jarduna gidatuko duen lema eta jorratuko diren lan-ildoak.

**2. Prozesua garatzeko ekarpena.**

2.1 Hiru beka independente izango dira. Bakoitzari 10.000,00 euroko ekarpena egingo zaio.

2.2 Banatuko den ekarpen ekonomikoa sormen prozesua eta Badalaben egoitzan eskaini beharko diren ekintzak finantzatzeko erabiliko da.

2.3 Laguntza ekonomikoaz gain, egitasmo hautatuei Badalabeko baliabideak eta espazioak eskainiko zaizkie, beharren eta aukeren arabera erabiltzeko. Edozein kasutan, ez da egonaldia egiteko deialdia.

2.4 Sormen prozesuetan bidelaguntza emateko aukera urteroko deialdian zehaztuko da, hala badagokio.

**3. Eskatzaileak**

3.1 Edozein norbanakori zuzendutako deialdia da, edozein delarik norbanakoen formakuntza maila.

Hala ere, deialdira ezin izango dira aurkeztu Badalaben gobernu zein administrazio organoren batean ordezkari diren kideak, ez eta Partzuergokoak diren bertako langileak ere.

3.2 Deialdira elkarrekin aurkeztu ahal izango dira hainbat pertsona fisiko. Ez zaie eskatuko beraien arteko harremana formalizatzerik, baina izen-emate orrian arduradun bat izendatu beharko dute.

## ANEXO I

**Bases reguladoras para la concesión de becas de creación y mediación que contribuyan al lema que orienta la actuación del Laboratorio y difundan y enriquezcan su programa público.**

**1. Objetivos y ámbitos de aplicación.**

1.1 El objetivo de estas becas es doble: por un lado, identificar y apoyar aquellas iniciativas experimentales que se enmarcan en el lema definido, que van en coherencia con las bases del laboratorio y a las que se les presupone potencial para alimentar una comunidad de hablantes que en el futuro elija vivir en euskera; por otro, ampliar y enriquecer el programa público del laboratorio.

Las becas están dirigidas a toda iniciativa experimental, cualquiera que sea su disciplina.

1.2 En la convocatoria anual se determinarán el lema que guiará la actividad del Laboratorio y las líneas de actuación a desarrollar.

**2. Contribución al desarrollo del proceso.**

2.1 Habrá tres becas independientes. A cada uno se le realizará una aportación de 10.000,00 euros.

2.2 La aportación económica a distribuir se destinará a financiar el proceso creativo y las acciones que se ofrecerán en la sede de Badalab.

2.3 Además de la ayuda económica, se ofrecerán a los proyectos seleccionados recursos y espacios de Badalab para que los utilicen en función de las necesidades y posibilidades. En todo caso, no se trata de una convocatoria para la realización de una residencia.

2.4 La posibilidad de acompañamiento en los procesos creativos se determinará, en su caso, en la convocatoria anual.

**3. Solicitantes.**

3.1 Se trata de una convocatoria dirigida a cualquier individuo, independientemente de su nivel formativo.

No obstante, no podrán presentarse a la convocatoria las personas con representación en alguno de los órganos de gobierno o administración de Badalab, ni tampoco las personas empleadas del Consorcio.

3.2 A la convocatoria se podrán presentar conjuntamente varias personas físicas. No se les exigirá la formalización de su relación, pero deberán

nombrar una persona responsable en la hoja de inscripción.

3.3 Eskatzaileak ez dira sartuta egon behar azaroaren 17ko diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak 23. artikuluan ezartzen dituen debeku kasuetan; eta oinarri hauetan adierazitako gainerako baldintzak ere bete behar ditu.

3.3 Los solicitantes no deberán estar incursos en ninguna de las prohibiciones establecidas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en el artículo 23 del Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para la Vida Libre de Violencia Machista contra las Mujeres, así como en el resto de los requisitos señalados en estas bases.

Aurreko lerroetan adierazitakoa egiaztatzeko, eskatzaileak ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko du.

Para acreditar lo señalado en las líneas anteriores, el solicitante deberá presentar una declaración responsable.

**4. Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bideragarritasuna**

**4. Compatibilidad con otras subvenciones o ayudas**

Oinarri hauetan aurreikusitako bekak bateragarriak dira Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk xede bererako eman ditzakeen dirulaguntza, sarrera edo baliabideekin, beste dirulaguntza batzuen araudi erregulatzaileak ezar dezakeenari kalterik egin gabe.

Las becas previstas en las presentes bases son compatibles con las subvenciones, ingresos o recursos que para la misma finalidad pueda conceder cualquier administración o ente público o privado estatal, comunitario o internacional, sin perjuicio de lo que pueda establecer la normativa reguladora de otras subvenciones.

Nolanahi ere, oinarri hauetan araututako beken zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

En todo caso, el importe de las subvenciones reguladas en las presentes bases no podrá en ningún caso superar el coste de la actividad subvencionada, por sí o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos.

**5. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.**

**5. Forma y plazo de presentación de las solicitudes.**

5.1 Deialdiaren informazioa eta eskaera-orriak eskuragarri egongo dira Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren webgunean (www.badalab.eus). Eskabidea honako dokumentu hauekin osatuko da:

5.1 La información de la convocatoria y las instancias estarán disponibles en la página web del Consorcio de Innovación Lingüística Badalab (www.badalab.eus). La solicitud se completará con los siguientes documentos:

• Izen-emate orria.

• Hoja de inscripción.

• Sortzailearen edo kolektiboaren aurkezpen laburra eta motibazio gutuna. Nor gara eta zergatik nahi dut/dugu ekimen hau garatu? PDF formatuan. Gehienez ere bi orri, eta testua Arial tipografian, 12 puntutako tamainan.

• Breve presentación de la persona o el colectivo creador y carta de motivación. ¿Quiénes somos y por qué queremos desarrollar esta iniciativa? En formato PDF. Máximo dos páginas y texto en tipografía Arial de 12 puntos.

• Ekimen esperimentalaren azalpena, honako informazio hau jasota:

• Presentación de la iniciativa experimental, con la siguiente información:

◦ Gehienez ere 10 orrialde izango ditu.

◦ 10 páginas máximo.

◦ Arial tipografian, 12 puntutako tamainan.

◦ Tipografía Arial, 12 puntos.

◦ Zein modutan egiten dio ekarpena Badalaben urteko lemari? Non kokatzen da eta zein helbururi erantzun nahi dio?

◦ ¿De qué manera contribuye al lema anual de Badalab? ¿Dónde se sitúa y a qué objetivo pretende responder?

◦ Ekimen esperimentalaren deskribapena eta sinopsia, hala badagokio.

◦ Lantzen dituen diziplinak.

◦ Zein publikori zuzenduta dagoen, xede taldea.

◦ Badalaben programa publikoan zer nolako ekarpena egingo den. Zein ekintza proposatuko diren, zein helbururekin, zein xede talderi zuzenduak.

◦ Garapenaren plangintza

◦ Aurrekontua

◦ Ideia elikatzeko inspirazio edo erreferentzia iturriak: estekak, webguneak, eta abar.

5.2 Eskaera orriak eta horrekin batera eskatzen den dokumentazioa paperean zein posta elektroniko bidez bidali ahal izango da.

Paperezko eskabideak bidaltzeko helbidea: Madalen kalea 27, 20100, Errenteria, Gipuzkoa.

Posta elektronikoz bidaltzeko helbidea: goiartzabal@badalab.eus

5.3 Eskaerak aurkezteko epea urte bakoitzeko deialdian ezarriko da.

5.4 Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 68. artikuluan ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, zuzentzen ez baditu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 21. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

**6. Emateko prozedura.**

6.1 Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da eta deialdi eta hautaketa prozesu bakarra egingo da.

6.2 Prozedura ofizioz hasiko da, deialdi publiko bidez. Deialdia organo eskumendunak onartuko du eta Badalab Partzuergoaren webgunean (www.badalab.eus) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) iragarkia argitaratuko da.

**7. Instrukzioa eta Hautaketa Batzorde Mistoa.**

7.1 Beka hauek emateko prozeduraren instrukzioa Badalabeko Idazkaritzari dagokio. Honek ofizioz egingo

◦ Descripción y sinopsis, en su caso, de la iniciativa experimental.

◦ Disciplinas que trabaja.

◦ Público objetivo al que va dirigido.

◦ Aportación al programa público de Badalab. Qué acciones se van a proponer, con qué objetivos, a qué grupo objetivo van dirigidas.

◦ Planificación del desarrollo

◦ Presupuesto

◦ Fuentes de inspiración o referencia para la idea: enlaces, páginas web, etc.

5.2 Las instancias de solicitud, junto con la documentación que se solicite, podrán enviarse en papel o por correo electrónico.

Dirección de envío de solicitudes en papel: Madalen 27, 20100, Errenteria, Gipuzkoa.

Dirección de correo electrónico: goiartzabal@badalab.eus

5.3 El plazo para presentar las solicitudes se fijará en la convocatoria anual.

5.4 En el caso de que la solicitud o la documentación que la acompaña no reúna datos identificativos, adolezca de error o inexactitud, se requerirá al solicitante para que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común, los subsane en el plazo de diez días, con indicación de que, si no los corrige, se entenderá por desistida su petición, de conformidad con lo previsto en el artículo 21 de dicha ley.

**6. Procedimiento de concesión.**

6.1 El procedimiento de concesión de las subvenciones será el de concurrencia competitiva, realizándose un único proceso de convocatoria y selección.

6.2 El procedimiento se iniciará de oficio mediante convocatoria pública. La convocatoria será aprobada por el órgano competente y se publicará en la página web del Consorcio Badalab (www.badalab.eus) y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (BOG).

**7. Instrucción y Comisión Mixta de Selección.**

7.1 La instrucción del procedimiento de concesión de estas becas corresponde a la Secretaría de Badalab.

ditu egoki iruditzen zaizkion jarduera oro ebazpen proposamena emateko behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko.

Esta realizará de oficio cuantas actuaciones estime oportunas para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos precisos para formular la propuesta de resolución.

7.2 Eskaeren balioespena 8. oinarrian jasotzen diren irizpideen arabera egingo du eginkizun horretarako berariaz sortuko den Hautaketa Batzorde Mistoak. Honek eskaera guztiak aztertuko ditu eta ondoren, proposamen ebazpen bat emango du, non egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko baita, eta eskumeneko organoari emango dion onar dezan.

7.2 La Comisión Mixta de Selección creada al efecto valorará las solicitudes de acuerdo con los criterios que se recogen en la base número 8. Esta estudiará todas las solicitudes y, a continuación, dictará una propuesta de resolución en la que se determinará el resultado de la evaluación realizada y se elevará al órgano competente para su aprobación.

Dirulaguntzaren Hautaketa Batzorde Mistoaren osaketa urteroko deialdian zehaztuko da.

La composición de la Comisión Mixta de Selección de la subvención se determinará en la convocatoria anual

7.3 Dirulaguntzaren Hautaketa Batzorde Mistoaren osaketan, gaitasun, eskumen eta prestakuntza egokidun gizonen eta emakumeen presentzia orekatua bermatzeko, ahal den guztietan bermatuko delarik genero bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza duela, emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak, 10. artikuluan dioenari jarraikiz.

7.3 En la composición de la Comisión Mixta de Selección de la subvención, a fin de garantizar una presencia equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y formación adecuada, se garantizará, siempre que sea posible, que cada género esté representado al menos al 40%, de acuerdo con el artículo 10 del Texto Refundido de la Ley para la Vida Libre de Violencia Machista contra las Mujeres.

**8. Hautaketa irizpideak.**

**8. Criterios de selección.**

8.1. 7. oinarrian aipatutako Hautaketa Batzorde Mistoak irizpide hauen arabera ebaluatuko ditu proposamenak:

- Laborategiak definitutako lemari egiten dion ekarpena.
- Programa publikoari egingo zaion ekarpena. Komunitatearekin elkarrizketak eta elkarreragina sortzeko gaitasuna.
- Emandako laguntzarekin aurreikusten den garapena edo ibilbidea.
- Ez-ohiko elkarlan batek sustatutako ideia izatea.

8.1. La Comisión Mixta de Selección a que se refiere la base 7ª evaluará las propuestas en base a los siguientes criterios:

- Aportación al lema definido por el laboratorio.
- Aportación al programa público. Capacidad para generar diálogo e interacción con la comunidad.
- Desarrollo o recorrido previsto con la ayuda concedida.
- Idea promovida por una colaboración no habitual.

8.2. Ebaluazio-irizpideen zehaztapena:

- Laborategiak definitutako lemari egiten dion ekarpena: Laborategiak, urtero, bere jarduna gidatuko duen lema definituko du. Lemaren adierazpena lagunduta joango da honen ulerkera gehiago zehaztuko edo ezaugarrituko duen deskribapen batekin. Egitasmo esperimentalaren bidez honi egiten zaion ekarpena baloratuko da. Atal honetan 30 puntura arte lortu ahal izango da, eta honela banatuko da:

a) Kokapena. Lemaren eta egitasmoaren arteko uztarketa, aurreikusten zaion ekarpenaren deskribapena. Eragin esparrua (15 puntu).

8.2 Definición de los criterios de evaluación:

- Aportación al lema definido por el laboratorio: El laboratorio definirá cada año el lema que guiará su actuación. El lema irá acompañado de una descripción que facilite su comprensión. Se valorará la contribución que realiza el proyecto experimental. Se valorará con un máximo de 30 puntos, distribuidos de la siguiente manera:

a) Ubicación. Combinación de lema y proyecto, descripción de la contribución prevista. Ámbito de acción (15 puntos).

b) Berrikuntza, originaltasuna eta sormena. Ohikoa ez den ikuspegia txertatzeko potentzialitatea, esplorazio edota eragin ildo berriak irekitzekoa (15 puntu).

- Programa publikoari egingo zaion ekarpena. Komunitatearekin elkarrizketak eta elkarreragina sortzeko gaitasuna. Laborategiaren egiteko moduaren ezaugarrietako bat da komunitatearekin elkarreraginaren bilaketa, norbanakoen hizkuntza ezagutza – ohitura – ideologian eragiteko, batetik, eta bestetik ekarpena egiteko hizkuntzan ardazturiko komunitate anitzaren garapenean. Norabide horretan, programa publikoa da laborategiaren tresna garrantzitsu bat. Hau aberastea eta osatzea da deialdi honen helburuetako bat, eta, beraz, egitasmoaren bidez honi egiten zaion ekarpena baloratuko da. Atal honetan 30 puntura arte lortu ahal izango da.

    a) Ekarpena. Programa aberasteko aurreikusten diren jarduketen deskribapena, helburuak, dinamikak eta metodologia. Bat edo gehiago izan daitezke (15 puntu).

    b) Xede taldeak. Dinamiken xede taldea, hartzailea. Bat edo gehiago izan (15 puntu).

- Emandako laguntzarekin aurreikusten den garapena edo ibilbidea eta espero diren emaitzak eta ikasketak: 20 punturekin baloratuko dira.

- Ez-ohiko elkarlan batek sustatutako ideia izatea. 20 puntu jaso ahal izango ditu:

    a) Taldean garatuko den proposamena (10 puntu).

    b) Taldea ohikoa ez den elkarlan baten bidez sortzea. Ezagutza arloaren, lurraldetasunaren, lan sektorearen edota adinaren ikuspegitik jatorri desberdina edukitzeari dagokio. Aurretik elkarlanean proiekturik gauzatu ez izana justifikatu behar da (10 puntu).

8.3. Eskaeren balorazio globala:

Hautaketa Batzorde Mistoak zalantzarik badu aurkeztutako proposamen bati buruz, hautagai-zerrendak lehenesteko prozesuaren baitan elkarrizketa pertsonal bat egitea erabaki ahal izango du, horiek argitzen saiatzeko. Horren guztiaren akta egingo da, eta administrazio espedienteari erantsiko zaio.

Gutxienez 40 puntu lortzen ez dituzten proposamenak ezetsiak izango dira. Puntuazio handiena lortzen duten hiru proposamenak izango dira esleipendunak.

b) Innovación, originalidad y creatividad. Potencialidad para incorporar una perspectiva atípica, abriendo nuevas líneas de exploración y/o impacto (15 puntos).

- Aportación al programa público. Capacidad de generar diálogo e interacción con la comunidad. Una de las características de la forma de hacer del laboratorio es la búsqueda de la interacción con la comunidad para incidir en el conocimiento – hábito – ideología lingüística de las personas y contribuir al desarrollo de una comunidad diversa centrada en la lengua. En esa línea, el programa público es una herramienta importante del laboratorio. Uno de los objetivos de esta convocatoria es enriquecer y complementar dicho programa, por lo que se valorará la contribución del proyecto. Se valorará con un máximo de 30 puntos.

    a) Aportación. Descripción, objetivos, dinámicas y metodología de las actuaciones previstas para enriquecer el programa. Pueden ser una o varias (15 puntos).

    b) Público objetivo: Grupo destinatario de las dinámicas. Uno o varios (15 puntos).

- Desarrollo o recorrido previsto de la ayuda concedida y resultados y aprendizajes esperados: Se valorarán con 20 puntos.

- Idea promovida por una colaboración no habitual. Se valorará con 20 puntos:

    a) Propuesta a desarrollar en grupo (10 puntos).

    b) Creación del grupo a través de una colaboración no habitual. Se refiere a tener procedencias diferentes desde el punto de vista del área del conocimiento, la territorialidad, el sector laboral o la edad. Se debe justificar no haber realizado proyectos en colaboración anteriormente (10 puntos).

8.3. Valoración global de las solicitudes:

Cuando la Comisión Mixta de Selección tenga dudas sobre una propuesta presentada, podrá acordar la realización de una entrevista personal dentro del proceso de priorización de candidaturas para tratar de aclararlas. De todo ello se levantará acta que se incorporará al expediente administrativo.

Las propuestas que no alcancen una puntuación mínima de 40 puntos serán desestimadas. Serán adjudicatarias las tres propuestas que obtengan mayor puntuación.

Nolanahi ere, Hautaketa Batzorde Mistoak, arrazoituta, deialdia hutsik utzi ahal izango du aurkeztutako proposamenek behar besteko kalitaterik ez badute, deialdiarekin bat ez badatoz edo interesgarriak irizten ez badira.

En todo caso, la Comisión Mixta de Selección podrá declarar desierta la convocatoria cuando las propuestas presentadas no tengan la calidad suficiente, no se ajusten a la convocatoria o no se consideren de interés.

**9. Ebazpena.**

**9. Resolución.**

9.1 Behin balioespena eginda, Hautaketa Batzorde Mistoak txosten bat emango du. Bertan, zehaztuko dira, bai egindako ebaluazioaren emaitza, bai hautagaien sailkapena lortutako puntuazioen arabera. Berdinketa badago, zerrendan lehenago joango dira "Laborategiak definitutako lemari egiten dion ekarpena" eta "Programa publikoari egingo zaion ekarpena. Komunitatearekin elkarrizketak eta elkarreragina sortzeko gaitasuna" irizpideen batuketan puntuazio altuena lortu dutenak.

9.1 Una vez realizada la valoración, la Comisión Mixta de Selección emitirá un informe, en el que se especificará el resultado de la evaluación realizada y la clasificación de las personas candidatas en función de las puntuaciones obtenidas. En caso de empate, tendrán prioridad quienes hayan obtenido mayor puntuación en la suma de los criterios "Aportación al lema definido por el laboratorio" y "Aportación al programa público. Capacidad para generar diálogo e interacción con la comunidad".

Proposamenak orobat jasoko du ordezkoen zerrenda bat eta baztertuen zerrenda bat, non zehaztuko baita baztertzearen arrazoia; eta, hala badagokio, deialdia hutsik geratu den adierazpena.

La propuesta contendrá, asimismo, una relación de suplentes y una relación de excluidos en la que se especifique la causa de exclusión y, en su caso, declaración de desierta de la convocatoria.

Uko egite bat edo atzera egite bat badago, ordezkoak jasoko duen beka zatia proportzionala izango da uko egin duen pertsonak kontsumitu ez duen aldiarekiko.

En caso de renuncia o desistimiento, la parte de beca que percibirá el sustituto será proporcional al periodo de no consumo de la persona renunciante.

9.2 Esleipen proposamena Batzorde Betearazleari helaraziko zaio, eta honek beka emateko berariazko ebazpena luzatuko du, edo hala badagokio deialdia hutsik uzteko erabakia. Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, eta gainera Badalaben webgunean argitaratuko da (www.badalab.eus).

9.2 La propuesta de adjudicación se elevará al Comité Ejecutivo, que dictará resolución expresa de concesión de la beca o, en su caso, acuerdo de declarar desierta la convocatoria. La resolución se notificará individualmente a los interesados y además se publicará en la página web de Badalab (www.badalab.eus).

9.3 Beka emateak ez du berekin ekartzen lan lotura bat esleipendunarekin; ondorioz, ez du betekizunik sortzen Gizarte Segurantzarekiko.

9.3 La concesión de la beca no implica vinculación laboral con el adjudicatario, por lo que no genera obligaciones frente a la Seguridad Social.

9.4 Deialdia ebatzi eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hogei egunekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Behin epe hori igaro ondoren ebazpena ez balitzaie eskatzaileei behar bezala jakinarazi, beka eskaera ezetsitzat jo ahal izango da, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, bere 25.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

9.4 El plazo máximo para resolver la convocatoria y notificar la resolución será de veinte días contados a partir del día siguiente al de la finalización del plazo de presentación de solicitudes. Transcurrido dicho plazo sin que se haya notificado la resolución a los solicitantes, podrá entenderse desestimada la solicitud de beca, de conformidad con lo establecido en el artículo 25.1.a) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de la Administración Pública.

**10. Prozesuaren iraupena.**

**10. Duración del proceso.**

Prozesuaren garapena urte naturalaren baitan kokatuko da, urteroko deialdian finkatuko direlarik epe zehatzak. Hautatuak eta Jarraipen Arduradunaren artean adostuko da epe horren barruan prozesua nola garatuko den, noiz/zer/nola egingo den. Aldeek duten prestutasunari eta konpromisoei lotuta egongo da.

El desarrollo del proceso se enmarcará dentro del año natural, fijándose en la convocatoria anual los plazos concretos. Se acordará entre la persona seleccionada y la persona Responsable de Seguimiento el desarrollo del proceso dentro de este plazo, qué/cómo/cuándo se

desarrollará. Estará sujeto a la disponibilidad y los compromisos de las partes.

**11. Beken ordainketa.**

Beka bakoitza 10.000 eurokoa izango da, urteko deialdian aurreikusten diren baldintzetan banatuta. Zenbateko horri dagozkion atxikipenak egingo zaizkio, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian ezarritakoaren arabera.

**11. Pago de las becas.**

Cada beca estará dotada con una cantidad de 10.000 euros, distribuidos en las condiciones que se contemplen en la convocatoria anual. Dicho importe estará sujeto a las retenciones que procedan, de conformidad con lo establecido en la normativa reguladora del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

**12. Jarraipena.**

12.1 Prozesuen jarraipena Hautaketa Batzorde Mistoak izendatutako Jarraipen Arduradunak egingo du, profil egokienak hautatuko direlarik lan honetarako. Hautaketa Batzorde Mistoak hala baloratuko balu, erakunde hauetatik kanpoko laguntza teknikoa jasotzeko aukera irekia da.

12.2 Amaierako txostena proiektua amaitu eta hamabost egunera aurkeztuko da. Txosten honetan helburuen lorpen-maila eta prozesuaren ondorioak zein ikasketa nagusiak aurkeztu beharko dira.

Amaierako txostenaren onarpena Jarraipen Arduradunak egingo du.

**12. Seguimiento.**

12.1 El seguimiento de los procesos será realizado por el Responsable de Seguimiento designado por el Comité Mixto de Selección, seleccionando los perfiles más adecuados para este trabajo. Si así lo valorara la Comisión Mixta de Selección, la posibilidad de recibir asistencia técnica fuera de estas entidades es abierta.

12.2 El informe final se presentará quince días después de la finalización del proyecto. En este informe se deberá presentar el grado de consecución de los objetivos y las conclusiones y aprendizajes principales del proceso.

La aprobación del informe final será realizada por el Responsable de Seguimiento.

**13. Jarraipen Arduradunaren zereginak.**

Tutoreak edo proiektua zuzentzen duenak betekizun hauek izango ditu:

- Gidaritza, tutoretza eta aholkularitza eskaintzea beka jaso duen pertsona edo taldeari, prozesua burutzen lagunduz. Halaber, pertsona hori bideratzea ahal den prozesu osatuena eta askotarikoena egin dezan.

- Esperimentazio prozesua denez, hasieran aurkeztutako prozesuarekiko desbiderapenak egoteko aukera aurreikusten da. Jarraipen Arduradunaren zeregina izango da prozesuan zehar laguntza metodologikoa eskaintzea, eta urrats ororen baitako ikasketa azaleratuko dela bermatzea.

- Garatu beharreko prozesuan genero-ikuspegia txertatzen dela zaintzea.

**13. Funciones del Responsable de Seguimiento.**

El tutor o director del proyecto tendrá las siguientes obligaciones:

- Ofrecer tutoría y asesoramiento a la persona o grupo becado, colaborando en la ejecución del proceso. Asimismo, orientar a esta persona para que realice el proceso más completo y variado posible.

- Al tratarse de un proceso de experimentación, se prevé la posibilidad de que existan desviaciones respecto al proceso inicialmente presentado. La persona Responsable de Seguimiento será la encargada de ofrecer apoyo metodológico a lo largo del proceso, garantizando la emergencia del aprendizaje en todos los pasos.

- Velar por la incorporación de la perspectiva de género en el proceso a desarrollar.

**14. Beka baten onuraduna den pertsonen obligazioak.**

Beka baten onuradun diren pertsonek obligazio hauek izango dituzte:

**14. Obligaciones de las personas beneficiarias de una beca.**

Las personas beneficiarias de las becas tendrán las siguientes obligaciones:

- Hautaketa Batzorde Mistoak izendatutako Jarraipen Arduradunarekin adostuko du lan prozesua, beka esleitu eta gehienez 10 egunen buruan, eta harekin adostutako jarraipen bileretan parte hartuko du.

- Egindako lana euskaraz garatu beharko da. Prozesuarekin lotutako edozein jarduera edo aurkezpen ere euskaraz garatuko da.

Nolanahi ere, beka baten onuradun diren pertsonek Jarraipen Arduradunarekin adostuko dute prozesuan zehar eta dokumentuen ekoizpenean bestelako hizkuntzen presentzia.

- Sortzen den edukia lizentzia libreetan jarri eta publiko egin beharko da. Honek ez du esan nahi jabetza Badalabena denik, baizik Creative Commons edo antzekoak erabiliz zabalkunderako lizentziak irekiak izan behar direla.

- Prozesuaren garapenean eta zabalkundean sor daitezkeen jarduerak Badalaben programazioan txerta ahalko dira, aurreko puntuko baldintza berberetan.

- Prozesuaren amaieran garapenaren memoria aurkeztu beharko da formatu digitalean.

- Badalaben izenak sortu diren piezen kredituetan edo emaitzetan azaldu beharko du erakundeak adierazitako irizpideen arabera.

**15. Emaitzen zabalkundea eta ustiapena.**

15.1 Hiru prozesuen emaitzak jendaurrean aurkeztu behar dira, Jarraipen Arduradunarekin adostutako formatuari jarriki, eta horretarako, berariaz, antolatuko den saioan.

15.2 Irauteko helburua duen Badalaben bilduma irekiaren parte izango dira sortuko diren emaitzak eta zentroko pantailetan eta erakundeak egokitzat jotzen dituen beste batzuetan erakutsi ahal izango dira, bai eta beste euskarri fisiko eta digitaletan ere. Edozein kasutan, hauek bilduman sartzeak ez du esan nahi jabetza Badalabena denik. Zabalkunderako lizentzia irekiak erabili beharko dira (Creative Commons eta antzekoak).

15.3 Hautatuek emaitzen edozein erabilerari begira, sortutako emaitzen zabalkunde eta argitalpenetan, jasotako dirulaguntzaren berri eman beharko dute.

**16. Helburuak ez betetzea eta dirulaguntza itzultzeko prozedura.**

Jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko da eta berandutzako interesak ere eskatuko dira, beka

- El proceso de trabajo se consensuará con el Responsable de Seguimiento designado por la Comisión Mixta de Selección en el plazo máximo de 10 días desde la adjudicación de la beca y participará en las reuniones de seguimiento acordadas con el mismo.

- El trabajo realizado deberá desarrollarse en euskera. De igual manera, cualquier actividad o presentación relacionada con el proceso se desarrollará en euskera.

En cualquier caso, las personas beneficiarias de las becas acordarán con la persona Responsable de Seguimiento la presencia de otras lenguas durante el proceso y en la producción de documentos.

- El contenido resultante deberá disponerse en licencias libres y deberá hacerse público. Ello no significa que la propiedad corresponda a Badalab, sino que las licencias de difusión deberán ser abiertas utilizando Creative Commons o similares.

- Las actividades que puedan surgir en el desarrollo y difusión del proceso pueden integrarse en la programación de Badalab, en iguales condiciones que en el anterior punto.

- Al final del proceso deberá presentarse una memoria de desarrollo en formato digital.

- El nombre de Badalab deberá figurar en los créditos o resultados de las piezas creadas según los criterios indicados por la entidad.

**15. Difusión y explotación de resultados.**

15.1 Los resultados de los tres procesos se someterán a presentación pública, de acuerdo con el formato acordado con la persona Responsable de Seguimiento, en la sesión que se organice al efecto.

15.2 Los resultados generados formarán parte de la colección abierta de Badalab con vocación de permanencia y podrán ser mostrados en las pantallas del centro y en otros soportes físicos y digitales que la organización considere oportunos. En cualquier caso, su inclusión en la colección no significa que la propiedad sea propiedad de Badalab. Se deberán utilizar licencias de difusión abiertas (Creative Commons y similares).

15.3 Los seleccionados deberán comunicar la subvención recibida en cualquier uso de los resultados, difusión y publicación de los resultados generados.

**16. Incumplimiento de objetivos y procedimiento de reintegro.**

Procederá el reintegro de la subvención percibida y la exigencia de intereses de demora desde el momento

ordaintzen den unetik itzuli beharra erabakitzen den egunera arte, azaroaren 17ko diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluko 1. eta 3. ataletan ezarritako kasuetan.

Lege horrek berariaz xedatutakoaren arabera gauzatuko da itzultzeko prozedura.

**17. Araudi aplikagarria.**

17.1 Oinarri hauetan aurreikusitakoaz gain, honako hauek xedatutakoa bete beharko da: azaroaren 17ko diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, eta lege hori garatzeko Erregelamenduak (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartuak).

17.2 Oinarriotan arautUtako bekak ez dira Estatuaren laguntza, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 1. zenbakian ezarritako baldintzetan; izan ere, ez da estatu kideen arteko merkataritza trukerik.

## II. ERANSKINA

**2025eko deialdia, Laborategiaren jarduna gidatuko duen lemari ekarpena egingo dioten eta bere programa publikoa zabaldu eta aberastuko duten sormen eta mediazio bekak emateko.**

**1. Deialdiaren xedea, lema eta lan ildoak.**

1.1 Deialdi honek, zehazki, “Transmisioa, Transizioa, Transgresioa. Irtenbidea kolektiboa da” lema oinarri harturik, honi ekarpena egingo dioten disziplina anitzeko egitasmo esperimentalak laguntzeko helburua du. Prozesu hauek 2073 urtean euskaratik eta euskaraz bizitzeko hautua egingo duen komunitatea egon dadin, oraina arrakalatzeko helburua dute, ohiko moldeetatik irteten diren proposamenak eginez, eta aldi berean, Badalaben programa publikoa aberastuz.

Urteko jarduna gidatuko duen lema definitzen duten elementuak  horrela azal daitezke:

- **Transmisioa**. Hiru adierazpide desberdin lotzen zaizkio kontzeptu honi. Batetik, nora goazen irudikatzeko, nondik gatozen eta non gauden kolektiboki eraikitzeko eta kontatzeko ekintzari dagokio. Bestetik, dagokio sare kolektiboetan nodo desberdinen arteko energia fluxuari edota harremanari. Azkenik, lekualdatzearen logikatik, bestelako sektore edota esparruetako ekimenak eta jakintzak euskararen auzira ekartzeko ariketari dagokiona.

del pago de la beca hasta la fecha en que se acuerde su devolución, en los supuestos previstos en los apartados 1 y 3 del artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

El procedimiento de reintegro se llevará a cabo de conformidad con lo dispuesto al efecto en dicha Ley.

**17. Normativa aplicable.**

17.1 Además de lo previsto en estas bases, se estará a lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.

17.2 Las becas reguladas en estas bases no son una ayuda del Estado en los términos establecidos en el apartado 1 del artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, ya que no se trata de un intercambio comercial entre Estados miembros.

## ANEXO II

**Convocatoria 2025 para la concesión de becas de creación y mediación que contribuyan al lema que orienta la actuación del Laboratorio y difundan y enriquezcan su programa público.**

**1. Objeto de la convocatoria, lema y líneas de actuación.**

1.1 Esta convocatoria, partiendo del lema "Transmisión, Transición, Transgresión. La solución es colectiva” tiene como objetivo apoyar proyectos experimentales multidisciplinares que contribuyan al desarrollo del lema. El objeto de dichos procesos es abrir una brecha en el presente para que en el año 2073 exista una comunidad que haya decidido vivir desde el euskera y en euskera, con propuestas fuera de los moldes habituales, y al mismo tiempo, enriqueciendo el programa público de Badalab.

Los elementos que definen el lema que guiará la actividad anual se pueden explicar de la siguiente manera:

- **Transmisión.** Se asocian a este concepto tres representaciones diferentes. Por un lado, se refiere a la acción de imaginar a dónde vamos, de dónde venimos y dónde estamos para construir y contar colectivamente. Por otro lado, se refiere al flujo o relación de energía entre diferentes nodos en redes colectivas. Por último, desde la lógica del desplazamiento, el que corresponde al ejercicio de trasladar iniciativas y conocimientos de otros sectores o ámbitos al ámbito del euskera.

- **Transizioa.** Hor gaudelako. Ez han ez hemen. Zaharraren eraldaketan, berria jaio nahian. Hizkuntza ohituren aldaketak edota hizkuntza ikasketa prozesuak horixe direlako, prozesuak, eta Badalabek horiei begiratzen die, horietan eragiteko. Komunitate askotarikoen eraikuntza denborak ere egongo dira laborategiaren fokuan.

**-Transgresioa.** Laborategiaren izaerari, irudimenari estuki lotuta. Ohiko bideetatik irteteko edota ohiko egiteko moduak eraldatzeko sortu zelako Badalab.

- **Irtenbidea kolektiboa da.** Guztiaren oinarrian kolektibotasuna, ez-ohiko lankidetzak eta komunitategintza dagoelako.

Bestalde, laborategiak ekitaldi honetan garatuko dituen ekimen zehatzak dira:

**Etorkisuneku 01**. Hizkuntzari eta hiztun komunitateari lotutako kontakizunak, diskurtsoak berritzeko eta ez-baian jartzeko beharrari ekarpena egin nahi dion instalakuntza batekin abiatu du urtea Laborategiak. Etorkizuneko euskararen agertoki berriak iradoki nahi dituzten prototipo artistikoak bilduko dira bertan, lagungarri direlakoan oraina arrakalatzeko, egiteko, egoteko eta gure burua kontatzeko moduak eraldatzeko. Instalakuntza bera programa publiko zabal batek osatuko du.

**Errenteria laborategia.** Herri mailako euskararen ekosistema artikulatzeko ekarpena egiten jarraitu nahi du. Nola hurbildu euskara, gaur eta hemen, herrian, hizkuntzatik urrunago dauden gorputz haietara? Nola egin euskarak balio dezan bizikidetzan urrats esanguratsua emateko tresna gisa? Hizkuntza eta komunitategintza daude jopuntuan.

**Komunikazio libreago baterantz trantsizioa.** Nahi ditugun komunitateak sortzeko eta elikatzeko, sareetan gure espazio propioak sortzeko, iaz abiatutako jarraituko dugu, urrats berriak emanez.

**Herrigintza, aktibismoa, militantziak 02.** 2024 urtean abiatutako bidean jasotako ekarpenei jarraipen zuzena emango zaio. Zer nolako herrigintza, militantzia edota aktibismoa behar dugu, egun, euskarak eta euskal hiztun komunitateak aurrera egin dezan?

**Kutxaz Kanpo.** Ludikotasunean sakontzen segituko du Badalabek ekimen honekin, hizkuntza ohituren aldaketa laguntzeko, hizkuntza konzientzia pizteko eta enpatia lantzeko jolasak erabiliz.

- **Transición.** Porque estamos ahí. Ni allí, ni aquí. En la transformación de lo antiguo, en el que lo nuevo emerge. Porque los cambios en los hábitos lingüísticos son eso mismo, procesos, y en ellos se fija Badalab, para actuar sobre ellos. Los tiempos de construcción de las diversas comunidades también estarán en el foco del laboratorio.

- **Transgresión.** Estrechamente ligado al carácter del Laboratorio, a la imaginación. Porque Badalab se creó para salir de los cauces habituales o para transformar las formas de hacer habituales.

- **La solución es colectiva.** Porque todo se basa en la colectividad, las colaboraciones no habituales y la construcción de comunidad.

Por otra parte, estas son las iniciativas concretas que el laboratorio desarrollará durante este ejercicio:

**Etorkisuneku 01**. El Laboratorio ha comenzado el año con una instalación que pretende hacer una aportación a la necesidad de renovar y poner en duda los discursos y relatos relacionados con la lengua y la comunidad hablante. En ella se mostrarán prototipos artísticos que pretenden sugerir nuevos escenarios del euskera del futuro y que contribuyan a generar una brecha en el presente, para cambiar la manera de hacer, estar y contarnos. La instalación se completará con un amplio programa público.

**Errenteria laborategia.** Quiere seguir contribuyendo a la articulación del ecosistema del euskera en el ámbito local. ¿Cómo acercar el euskera, aquí y ahora, en el pueblo, a esos cuerpos más alejados del idioma? ¿Cómo hacer que el euskera sirva como herramienta para dar un paso significativo en la convivencia? El lenguaje y la construcción de comunidad están en el punto de mira.

**Transición hacia una comunicación más libre.** Para crear y alimentar las comunidades que queremos, para crear nuestros propios espacios en las redes, seguiremos en la senda iniciada el pasado año, dando nuevos pasos.

**Hacer país, activismo, militancias 02.** Se hará un seguimiento directo de las aportaciones recibidas en la senda iniciada en 2024. ¿Qué tipo de militancia o activismo necesitamos hoy en día para que el euskera y la comunidad vascoparlante avancen?

**Kutxaz Kanpo.** Con esta iniciativa, Badalab seguirá profundizando en la parte lúdica, para favorecer el cambio de hábitos lingüísticos, utilizando juegos para despertar la conciencia lingüística y trabajar la empatía.

**2. Finantziazioa.**

Deialdi honetan dirulaguntzetarako guztira 30.000,00 euro emango dira, 1 480.02.02 2025 aurrekontuko kontu sailaren kargura.

**3. Eskaerak aurkezteko epea.**

Eskaintzak aurkezteko epea irekiko da deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean, eta 2025eko maiatzaren 9an bukatuko da, 12:00etan.

**4. Jarduketak gauzatzeko eta egiaztatzeko epea.**

Eskaerako jarduketak gauzatuko dira beken esleipenaren ebazpena Badalaben webgunean argitaratzen den egunetik 2025eko abenduaren 15era bitartean.

Zuriketa beranduenez 2025eko abenduaren 30erako egin beharko da.

**5. Eskaerarekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa.**

5.1. Dirulaguntzen eskaerak eranskin gisa doan eskaera ereduaren arabera aurkeztuko dira. Eredu hori eskuragarri dago Badalab Partzuergoaren webgunean, deialdi honi dagokion atalean (www.badalab.eus).

5.2. Eskatzaileen nortasuna egiaztatzeko NANaren kopia.

5.3. Eranskin gisa doan txantiloiaren arabera edo formatu librean; abiapuntuko ideiaren eta garatzea aurreikusten den prozesuaren aurkezpena edo deskribapena, honako informazio hau jaso behar da, gutxienez:

- Hautagaien (norbanako zein kolektibo) aurkezpen laburra eta motibazio gutuna. Nor gara eta zergatik nahi dut/dugu ideia hau garatu?

- Abiapuntuko ideiaren deskribapena eta garatzea aurreikusten den ibilbideari buruzko azalpena, jarraituko den metodologia eta baita ideiaren balizko garapenari aurreikusten zaion inpaktua ere. Emandako laguntzaren erabilera aurreikuspena azalpena. Ez dira prozesu/produktu/proiektu amaituak espero emaitza gisa.

- Ideia elikatzeko inspirazio edo erreferentzia iturriak: estekak, webguneak, eta abar.

**2. Financiación.**

El importe total de las subvenciones previstas en esta convocatoria será de 30.000 euros, con cargo a la partida presupuestaria 1 480.02.02 2025.

**3. Plazo de presentación de solicitudes.**

El plazo de presentación de ofertas se abrirá al día siguiente de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el 9 de mayo de 2025 a las 12:00 horas.

**4. Plazo de ejecución y comprobación de las actuaciones.**

Las actuaciones de la solicitud deberán realizarse desde el día de la publicación en la página web de Badalab de la resolución de la concesión de las becas hasta el 15 diciembre de 2025.

La justificación deberá realizarse a más tardar el 30 de diciembre de 2025.

**5. Documentación a adjuntar a la solicitud.**

Las solicitudes de subvención se presentarán conforme al modelo de solicitud que se adjunta como anexo. Este modelo está disponible en la página web del Consorcio Badalab, en el apartado correspondiente a esta convocatoria (www.badalab.eus).

5.2. Copia del DNI acreditativo de la identidad de los solicitantes.

5.3 Según la plantilla que se adjunta como anexo o en formato libre; presentación o descripción de la idea de partida y del proceso que se prevé desarrollar, deberá contener, al menos, la siguiente información:

- Breve presentación de los candidatos (individuales y colectivos) y carta de motivación. ¿Quiénes somos y por qué quiero desarrollar esta idea?

- Descripción de la idea de partida y explicación del itinerario que se prevé desarrollar, metodología que se seguirá, así como el impacto previsto al posible desarrollo de la misma. Descripción de la previsión de uso de la ayuda concedida. No se esperan procesos/productos/proyectos terminados como resultados.

- Fuentes de inspiración o referencia para alimentar la idea: enlaces, páginas web, etc.

5.4. Erantzukizuneko adierazpena, non jasoko den eskatzailea ez dagoela sartuta azaroaren 17ko dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak 23. artikuluan onuradun izateko aurreikusten dituen debekuetan.

5.4. Declaración responsable de no estar incurso el solicitante en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario previstas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en el artículo 23 del Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para la Vida Libre de Violencia Machista contra las Mujeres.

**7. Hautaketa Batzorde Mistoa**

Deialdi honetako Hautaketa Batzorde Mistoaren osaera honakoa izango da:

- Badalabetik: hiru ordezkari. Lehendakariak, lehendakariordeak eta zuzendariak osatuko dute Batzordea.

- Badalabeko idazkaritza, idazkari lanetan.

**7. Comisión Mixta de Selección**

La composición de la Comisión Mixta de Selección de esta convocatoria será la siguiente:

- Por Badalab: tres representantes. El presidente, la vicepresidenta y la directora formaran la Comisión.

- Secretario de Badalab, en labores de secretaría.

**8. Bekaren ordainketa.**

Bekaren ordainketa honela banatuko da:

- %30 lanketa hastearekin batera, Jarraipen arduradunarekin prozesuaren diseinua adostu eta 10 egunera.

- %20 uztailean, Jarraipen Arduradunak ordura arte landutakoaren egokitasuna balioztatu ondoren eta Laborategiaren programa publikoaren baitan, gutxienez, saio bat gauzatu ostean.

- Gainerako %50a azken emaitza aurkeztearekin batera, 2025eko abenduan, Jarraipen Arduradunak haren egokitasuna balioztatu ondoren eta amaierako memoria entregatu ostean.

**8. Pago de la beca.**

El abono de la beca se distribuirá de la siguiente manera:

- 30% al inicio del proceso, 10 días después de consensuar con el Responsable de Seguimiento el diseño del proceso.

- 20% en julio, una vez validada por la persona Responsable de Seguimiento la idoneidad de lo trabajado hasta el momento, y habiéndose realizado, al menos, una sesión dentro del programa público del Laboratorio.

- El 50% restante a la presentación del resultado final, en diciembre de 2025, una vez valorada su idoneidad por la persona Responsable del Seguimiento y entregada la memoria final.